

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko irailaren 28an

95 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Corellako Arrese Fundazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, José Vila ikastetxea ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzean hartuko diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, etorkinen lan baldintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Udal osasuntsuen programetarako itunak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Aurrea hartzeko eta osasuna sustatzeko programetarako itunak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, behi-azienda hiltzea dela-eta Europako Batasuneko arauak betetzearen hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Adingabeen Legea abian jartzeak dakarren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, kirol instalazioei buruzko 2000-2003 planaren ariora eraiki asmo diren igerileku estaliei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Lizarrako merindadeko zahar-etxeetako plazen premia beteta dagoenentz jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, errepideetako seinale metalikoak babesteko hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, hirigintzako udal planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Itoizko urtegiaren inguruko herrietako lurra nahitaez desjabetzeko tramiteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, komunikazioaren teknologiak denen eskura jartzeko jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

- Galdera, Bardeako tiro poligonoan bonbardaketa praktiketan uranio pobretua erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, abere irinak suntsitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, eremu mistoko errepideetako seinale elebidunak aldatzeko erabiliko den diru kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, kanpin instalazioen kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, tunelei buruzko araudi indardunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, tunelen egoeraren azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, urtegien egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nafarroako ubideko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

F saila:
GALDERAK

Corellako Arrese Fundazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Corellako Arrese Fundazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2000ko abenduaren 18ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du Corellako Arte Sakratuko Museoa zaharberritzeko obrak finantzatzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Arrese Fundazioak jasotako laguntzen eta diru laguntzen zerranda:

1985. Uztailaren 26ko 1044/1985 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, 1.000.000 pezetako diru laguntza eman zitzaion Corellako La Encarnación Museolari, "museo-sarerako laguntzak" kontusailaren kargura, mantentze-lanetarako.

1985. Abuztuaren 20ko 1133/1985 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, 800.000 pezetako gehieneko zenbatekoa zeukan diru laguntza eman zitzaion Corellako La Encarnación Museolari, segurtasun-sistema bat instalatzeko.

1985. Uztailaren 16ko 1005/1985 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, guztira 200.000 pezetako gastua egiteko baimena eman zen, Nafarroako Foru Gobernuaren zaintzapean zeuden zenbait museo eta eraikinen berri emateko lau triptiko prestatzeko. Horien artean, La Encarnación Museoa aipatzen zen. Foileto bakoitzerako gastua 50.000

pezeta ingurukoa izanen zela jo zen. Une horretatik aurrera, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu du sareko museoari buruzko informazio-foiletoren argitarapena, eta, 1998tik aurrera, web orria ere.

1986. Martxoaren 17ko 274/1986 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, Museoetarako Lankidetzeta eta Laguntza Hitzarmenak ezarri ziren zenbait museoekin, besteak beste, Corellako La Encarnación museoarekin. Azken horretarako 1.000.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1987. Apirilaren 6ko 387/1987 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetzeta eta Laguntza Hitzarmenen indarraldia luzatu egin zen. Museo-sare horretakoen artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.000.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1987. Abenduaren 31ko 1912/1987 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, Corellako La Encarnación museolari 500.000 pezetako diru laguntza ematea erabaki zen, mantentze-gastuetarako.

1988. Maiatzaren 17ko 454/1988 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berri egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetzeta eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretakoen artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.200.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1988. Abenduaren 16ko 1220/1988 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, 2.645.104 pezetako diru laguntza eman zen La Encarnación Museoa zaharberritzeko obretarako. Kantitate hori Corellan uztailean izan zen haizete batek eraikinari eragindako kalteak konpontzea kostatu zenaren % 50 da.

1989. Ekainaren 30eko 559/1989 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.200.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1990. Urriaren 19ko 748/1990 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.200.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1991. Maiatzaren 15eko 350/1991 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.250.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1991. Ekainaren 4ko 409/1991 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, 580.194 pezetako diru laguntza eman zen, La Encarnación museoan lapurketei eta arrotzak sartzeari aurre egiteko eta suteak automatikoki detektatzeko segurtasun-sistema bat instalatzeko.

1992. Maiatzaren 29ko 177/1992 Foru Agindua, Hezkuntza, Kultura eta Gazteri kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1993. Maiatzaren 19ko 225/1993 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1994. Apirilaren 29ko 135/1994 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1995. Martxoaren 17ko 83/1995 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1996. Martxoaren 4ko 87/1996 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1997. Martxoaren 11ko 74/1997 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1998. Martxoaren 9ko 68/1998 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1998. Urriaren 20ko 382/1998 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, 5.292.513 pezetako gastua onetsi zen, eta kopuru hori Arrese Fundazioari bideratu zitzaion, La Encarnación Museoaren berrinstalazioaren lehen faserako aurreiazko azterlanak, birmoldatze-aurreproiektu osoa eta exekuzio-proiektua egiteko laguntza gisa.

1998. Abenduaren 28ko 494/1998 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, diru laguntza bat onetsi zen Arrese Fundazioarentzat, La Encarnación museoaren berrinstalazioaren lehen egokitze-faserako behar den material elektrikoa erosteko zenbatekoaren % 75ekoa, eta horren muga 5.000.000 pezetakoa zen, justifikaturiko gastuen gain.

1999. Martxoaren 2ko 48/1999 Foru Agindua, Hezkuntza, Kultura eta Gazteri kontseilariarena. Horren bidez, berritu egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetza eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretako artean dago Corellako La Encar-

nación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

1999. Otsailaren 12ko 26/1999 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, Arrese Fundazioari 773.222 pezetako diru laguntza ematea erabaki zen, La Encarnación museoaren berrinstalazioaren bigarren faserako exekuzio-proiektua egiteko.

1999. Azaroaren 10eko 387/1999 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, 2.319.063 pezetako diru laguntza ematea erabaki zen, La Encarnación museoaren berrinstalazio-proiektuko aldaketak ordaintzeko eta horren segurtasun- eta osasun-azterlana egin eta aurkezteko.

1999. Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuen arte-lan batzuk desmuntatu eta enbalatzea, obrek iraun bitartean biltegian gordeta edukitzeko. Horren kostua 158.920 pezetakoa izan zen.

2000. Apirilaren 5eko 134/2000 Foru Agindua, Hezkuntza, Kultura eta Gazteri kontseilariarena. Horren bidez, berri egin ziren Nafarroako Museoen Sareko museoekin zeuden Museoetarako Lankidetzak eta Laguntza Hitzarmenak. Museo-sare horretakoen artean dago Corellako La Encarnación museoa, eta horri 1.500.000 pezeta bideratzea erabaki zen, mantentzerako.

2000. Ekainaren 20ko 246/2000 Foru Agindua, Hezkuntza eta Kultura kontseilariarena. Horren bidez, La Encarnación Museoko ondasun higigarrien multzoa kontserbatu eta zaharberritzeko lanak esleitu ziren, lehiaketa publikora joz. Horren zenbatekoa 9.500.000 pezetakoa zen.

Laguntza horiek emateko oinarri den araudia honakoa da: ekainaren 25eko 16/1985 Legea, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa; abenduaren 27ko 249/1985 Foru Dekretua, Museoetarako Lankidetzak eta Laguntza Hitzarmenak ezartzen dituenak; martxoaren 2ko 78/1992 Foru Dekretua, zeinak interes kulturalako ondasun, monumentu izaerakoak, deklaritzen baititu Arte

Sakratuko La Encarnación museoa, Corellan (Nafarroa) kokatua, eta bertan gordeta dauden ondasun higigarriak (ondasun horiek haren historiaren funtsezko osagai dira); eta ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoa.

Tributuei dagokienez, Arrese Fundazioari aplikatu beharrekoa da fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak ezarritakoa. Araubide horren egiazko aplikazioari dagokionez, Tributuei buruzko Lege Orokorraren 113. artikulua xedatu jarraituz, Tributu Administrazioak bere eginkizunak betetzean lorturiko datuak isilpekoak dira, eta kasu batzuetan bakarrik jakinaraz dakizkieke hirugarrenei; besteak beste, legeen esparruan Parlamentuko ikerketa-batzordeekin lankidetzan airtzean.

Hitzarmenaren jarraipenaz denaz bezainbatean, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak ohiko jarraipen- eta ikuskatze-ekintzak egin ditu. Museo, Ondasun Higigarri eta Arkeologi Atalak proiektu museologikoaren erredakzio-faserako aholkuak eman eta ikuskapen-lanak egin ditu; bestalde, Arkitektura Ondarearen Ataleko teknikariek La Encarnación konbentua Arte Sakratuko Museo izateko zaharberritu eta egokitzeko arkitektura-proiekturako aholkularitzalanak egin dituzte eta proiektu hori ikuskatu eta kontrolatu dute. Obra kontratatu ondoren, egokitzet lanei hurbileko jarraipena egin zaie; egokitzat jotzen ziren aldaketak baimendu dira eta eraikinean funtsezko aldaketak proposatzen zituzten soluzioei ezezkoa eman zaie (izan ere, eraikina, interes kulturalako ondasuna den aldetik, babestuta dago).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 15ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

José Vila ikastetxea ixteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak José Vila ikastetxea ixteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du "José Vilá Marqués" ikastetxe publikoari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1.- Azken bost urteotan matrikulaturiko ikasleen kopuruak jarraian adierazirikoak dira:

1996-97 ikasturtea:	65 ikasle
1997-98 ikasturtea:	65 ikasle
1998-99 ikasturtea:	70 ikasle
1999-00 ikasturtea:	61 ikasle
2000-01 ikasturtea:	65 ikasle

Iruñea aldean irakaskuntza publikoa gorakada izaten ari den arren (bai kopuru absolutuetan bai erlatiboki ere), ikasleen lekualdatze-prozesu bat gertatzen ari da, hiriaren zentrotik inguruetara. Hala da: izan ere, Iruña eta Iruñerriko ikastetxe publikoetan ikasleen guztizko kopurua 1.054 ikasle gehiagokoa izatera pasa da azken hamar urteotan. 1991-1992 ikasturtean hiru urteko 802 haur izatetik aurten 1.434 izatera pasa gara; beraz, % 78,8ko igoera izan da, hain zuzen ere, Foru Komunitate osoan eskola-haurren populazioak % 20 behera egin duen epe batean: 1991-1992 ikasturtean 100.000 ikaslekoa izatetik aurtengoan 80.000koa izatera jaitsi da. Dena den, Iruñerrian gertatzen dena behar bezala ulertu ahal izateko, kontuan hartu behar da ezen, eskualdearen kanpoaldean haur eskolatuen kopuruak gora egiten duen bitartean, proportzio berean behera egiten duela Iruñeko ikastetxeetan eskolatuen kopuruak.

2.- Ikastetxe hori ixtearen justifikazioa hezkuntza-zerbitzu hobea eskaini beharra da. Matrikulakopuru hain baxua duenez gero, haurrak taldetan bildu dira, zikloka. Zehazki, hiru, lau eta bost urte-

ko haurrak (hamahiru dira guztira) ikasgela berean bilduta daude; Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoak ere bai (hamabost haur), eta baita 3. eta 4. mailetakoak ere (beste hamabost haur). Egoera hori landa-ingurunean da ulergarria; izan ere, eskola unitarioari esker, eskola-garraioa eta jangelak saihesten dira eta ikuspegi sozial eta afektibotik haurrak euren herrietan errotuta egon daitezten ahalbidetzen da. Alabaina, Iruñekoa bezalako hiri-ingurune batean, hiri bereko beste ikastetxe bateraino –"Víctor Pradera" ikastetxe publikoa, hizpide dugun kasuan– distantzia handirik ez dagoenez gero, hezkuntza-zerbitzua ahalik eta baldintza onenetan emateak izan behar du lehentasuna, eta, horretarako, itzuriezina da maila bakarreko ikasle-taldeak osatzea.

Bestalde, ikastetxe bati prekarietatean eustek postuen eskaria uxatzeko beste ezertarako ez du balio, eta, gainera, horrela eskola publikoari ematen diogun irudia ez da guk herritarrei erakutsi nahi dieguna.

3.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuan zenbait urte eman ditugu postu-eskariaren joera aldatuko zen itxaropenaz erabaki bat hartzeko unea atzeratuz. Baina, matrikulari buruzko datuek adierazten dutenez, zuzendaritza-taldeak, irakasleek eta Administrazioak berak egin dituzten ahallegin ahalegin, joera ez da aldatu. Ondorioz, erabakia ezin da gehiago atzeratu. Halaber, ikastetxeko irakasleen egoera ere gogoan izan beharrekoa da, eta, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren arduradun naizen aldetik, arreta bereziz hartu behar dut kontuan: aurten, nazio-mailako lekualdatze-lehiaketak daude, eta 2002an autonomi erkidegoaren esparruko lekualdatze-lehiaketa izanen da. Iruñean postuak gordetzeko asmoa daukagu, "José Vilá" ikastetxeko irakasleei aukerak ziurtatzeko: 2001-2002 ikasturtean zehar postua Iruñean, zerbitzu-eginkizunetan, edukitze-ko bermea izanen lukete.

4.- Hezkuntza Departamentuari arrazoizkoen iruditzen zizaion alternatiba "Víctor Pradera" ikastetxe publikoa zen. "José Vilá" ikastetxetik hurbil dagoenez gero, ez zien enbarazurik ekartzen familiei, eta, aldi berean, inguru bereko ikastetxe hori indartu eta sendotzea lortzen genuen. Aukera hori baztertzeko "José Vilá" ikastetxeko Gurasoen Elkarteak adierazitako argudioekin bat ez bagatoz ere, eta jabetzen garenez ikastetxea ixteak arazo bat sortuko duela haren hezkuntza-proiektuan sinetsi duten gurasoentzat, haiek Mutiloako "San

Pedro" ikastetxea nahiago izana aintzat hartzea erabaki dugu, nahiz eta hori salbuespen bat izan eskolatzeari dagokionez Departamentuak daukan irizpideen ikuspegitik.

5.- A) Hezkuntza Zuzendari Nagusiak bilera egin zuen José Vilá Marquésen ondorengoekin, eta haiek, ikastetxeko instalazioak zertarako erabiliko diren (jadanik erabiltzen ari diren) jakindakoa, erabilera horrek euren arbasoaren borondatea guztiz betetzen zuela jo zuten. Bestalde, Iruñeko Udalak badauka gai honetan Hezkuntza eta Kultura Departamentuak duen asmoaren berri.

B) "José Vilá Marqués" ikastetxe publikoaren eraikinak hezkuntza-arloko erabilera atxikia izaten

segituko du. Izan ere, bertan batxilergoa irakasten segituko da, eta, aldi berean, Iruñeko Irakasleentzako Laguntza Zentroaren egoitza izanen da. Zentro hori Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuaren menpekoa da, eta duen eginkizuna bere eragin-eremuan irakasleei prestakuntza ematea da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 15ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzean hartuko diren neurriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzean hartuko diren neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzean hartuko diren neurriei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galderak

1.- Zer egin du edo egingen du Nafarroako Gobernuak Justizia Jauregiak bere baitan hartzen Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzeak dakartzan betebeharrak eta premiak (epaitegi berriak, grabaziorako bitartekoak, etab.)?

Lehenik eta behin, ñabarduraren bat egin behar zaio galderak egiten duen adierazpenari.

Burguete jaunak esaten duenez, "Prozedura Zibileko Lege berriak indarra hartzeak Nafarroako epaitegiek gainezka egitea ekarri du". Horri buruz prentsak adierazten zuena zen abokatuak bizkor ibili zirela, Prozedura Zibileko Lege berria indarra hartzerantz zihoala-eta, demandak urtarrilaren 8a baino lehenago aurkezteko, ordura arte indarra zeukan legeari jarraituz izapida zitezten.

Bestalde, prentsak ere, urtarrilaren 15ean, Iruñeko Abokatuen Elkargoak –zeina Iruña eta Agoizko barruti judizialeterako beste inorako ez baita eskudun—eginiko adierazpenen berri ematen zuen. Abokatuen Elkargoak giza eta gauza baliabide gehiago behar zirela zioen, baina plantilla % 50eko neurrian handitu beharra ez zen adierazten, eta Departamentu honek ez du horrelakorik entzun. Bestalde, 8 epaitegi berri sortu beharra lehen auzialdiko epaileek eginiko baieztapen bat izan zen, lehenagoko prentsa-albiste baten arabera, zeinak Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakartzako iturriak aipatzen baitzuten.

Errealitatean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aurreikusitako ratioek Prozedura Zibileko Lege berriaren ondoriozko beharrezan honek zehazten zituzten: bulego judizialeko langile-plantillan 4 edo 6 pertsonarainoko murrizketa egin behar izatea, kasu bakoitzaren arabera, sala bat egotea bi epaitegiko, eta planta judiziala % 33 gehitzea.

Horretarako, Nafarroako Gobernuaren ardura-pekoak izanik beharrezkoak diren bitarteko guztiak jartzeko asmoa dago; Iruñean ez ezik, beste lau barruti judizialeko egoitzetan ere.

Lekuei dagozkien ekintzak, alegia, behar adina judizio-areto lortzekoak eta organo judizial berriak izatekoak (Agoitzen 1 eta Iruñean 3, horietatik 1 familia arlokoa), eraikin judizialak eraberritu eta eraikitzeko programazioaren esparruan eginen dira. Programazio horren proiektu guztien taxuketa amaitzear dago jadanik, eta obra batzuk esleitzen ari dira.

Grabazio-bitartekoei dagokienez, prestatzen diren eta aipaturiko proportzioa betetzen duten judizio-areto guztietan instalatuko dira. Bitartean, 12 aretotan instalatuko dira grabazio-sistemak: Iruñeko 7tan (Probintzi Entzutegiko bi areto barne), Tuterako 2tan, Lizarrako 1ean, Tafallako 1ean eta Agoizko 1ean.

Sistema digitala izanen da, eta, kopiak egin ahal izateaz gain, epaile eta magistratuen bulegoetan bistaratze-euskarriak izanen ditu. Kable-jartzetara abian da, eta beharrezkoak diren hardware eta softwarearen erosketak esleituak dago.

Datozen bi hilabeteetan instalatuko dira horiek; hau da, lege berriari jarraituz judizioak egiten has-teko aurreikusitako epearekin batera. Guztira, inbertsioa 75.300.000 pezetakoa da.

2.- Nafarroako Gobernuak eskatu al dio Justizia Ministerioari giza baliabideak handitzeko, lege berritik heldu diren premiak asetzeko?

Lehen adierazi den bezala, aurreikusi bai baina oraindik egiaztatu ez diren langile-beharri-zanak ezberdinak dira, nortaz ari garen: magistratu eta idazkariez ala gainerako langileez. Lehenengoei dagokienez, beharri-zanak ezin izanen dira asetu planta judiziala handitzen ez bada. Horren alde eginen du Gobernu honek —adierazitako kopuruak kontuan hartuz—, bere eskumenen neurrian, zeinak arlo horretan ez baitira erabakitzaleak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 19an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Etorkinen lan baldintzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak etorkinen lan baldintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du etorkin "papergabeei" buruz. Hona Industri, Mer-

kataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andrearen erantzuna:

Espainiako Konstituzioko 149.1.2. artikulua arabera, Estatuak eskumen osoa dauka nazionalitate, inmigratio, emigratio, atzerritar eta asilo eskubidearen arloekin zerikusia duten gaietan. Horregatik, eskumen horiek ez zaizkio eskualdatu Nafarroako Foru Komunitateari, eta Estatuako Administrazioak erabiltzen ditu. Horrela, bada, arlo honekin zerikusia daukaten zehapen-espedienteen izapidaketa eta kontrolak, zeinak arlo sozialeko arau-hauste eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onesten duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 37. artikuluan arautuak baitaude, Estatuari dagozkio.

Iruñean, 2001eko otsailaren 19an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagaitia Ripoll

Aurrekontuko “Udal osasuntsuen programetarako itunak” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Udal osasuntsuen programetarako itunak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin zuen, 2000ko urriaren 27an, “Udal osasuntsuen programetarako itunak” izeneko 18110-8 lerroaren betetzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunerako Mundu Erakundeak Hiri Osasuntsuen Proiektua sortu zuen 1985ean, Guztiontzako Osasunerako estrategia lortzera bideraturiko politikak eta jarrerak sustatzeko. Testuinguru hartan, toki-esparruan osasun-jarduerak koordinatzeko berariazko estrategia bat bultzatu zen, eta, hori gauzatzuz, sei hitzarmen sinatu ziren, Artaxoa, Burlata, Cintruénigo, San Adrián, Tafalla eta Iruñeko udalekin.

Hitzarmen horien bitartez finantzatzeko ziren jarduerak aurretik eginiko Osasun eta Ingurumenari buruzko Diagnostiko baten arabera ziren. Diagnostiko hori udal bakoitzean egiten zen, eta finantzaturiko jardueren adibide batzuk honako hauek dira:

- Hiltegiatan hobekuntzak egitea.
- Udal igerilekuetan hobekuntzak egitea.
- Osasun-arloko diagnostikoa egin eta hori argitaratzea.
- Kaleak garbitzea.
- Zakurrentzako komunak.
- Tabako-ohiturei aurrea hartzea.
- Trafikoari buruzko Plan Orokorra.

- Udal Ordenantzak egitea.
- Zarata-mapa.
- Adierazle psikosozialak.
- Hondakindegia egokitzea.
- Ingurumen-heziketa.
- Emakumeari buruzko programa.
- Trafiko-istripuak.
- Gazteri politika.
- Eta abar.

Ikus daitekeenez, askotarikoa eta barne-loturarik gabea da zerrenda, nahiz eta jarduera guztiak jasotzen ez dituen.

Orduz geroztik, Osasun Departamentuak jarduera horietako asko plan edo programetan sartu ditu, eta horiek, berariazko lerroen bitartez edo haren zerbitzu berekien jarduera orokorraren barnean, jarduera horietako asko koordinatzen eta, kasu batzuetan, finantzatzeko segitzen dute (trafiko-istripuak, tabakoa erretzeari uztea, osasunerako heziketa, emakumearen programa eta abar).

Bestalde, Ingurumen Departamentuak ere eskumenak bereganatu ditu arlo horietako askotan, eta, horretarako, berariazko aurrekontu-lerroak dauka (hondakindegia, ingurumen-heziketa eta abar), nagusiki garapen jasangarrirako programetakoak direnak.

Horrela, bada, ez dirudi egokia denik udal jarduerak finantzatzeko deialdi orokor bat irekitzea. Horren ordez, Osasun Departamentua bera egiten ari den programetan txertatzea da komeni dena.

Ildo horretatik, aurrekontualdi batzuetan lerro horren zati bat erabili izan da antzeko helburuetara bideraturiko beste batzuen osagarri gisa, eta oraingo aurrekontualdian horrela erabiltzeko asmoa dago.

2000ko aurrekontualdian ez da inolako ordainketa edo gastu-baimenik egin edo eman aipaturiko aurrekontu-lerroa euskarri hartuta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 19an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Aurrekontuko “Aurea hartzeko eta osasuna sustatzeko programetarako itunak” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Aurea hartzeko eta osasuna sustatzeko programetarako itunak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin zuen, 2000ko urriaren 27an, aurrekontuko “Aurea hartzeko eta osasuna sustatzeko programetarako itunak” izeneko 18120-5 lerroaren betetzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

“Aurea hartzeko eta osasuna sustatzeko programetarako itunak” izeneko 18120-5 aurrekontu-lerroaren betetzeari buruz, hauxe jakinarazten da:

1) Osasun zuzendari nagusiak apirilaren 25eko 458/2000 Ebazpena eman zuen, beste erakunde batzuetarako eta osasun programetarako diru laguntzen 2000. urterako deialdia ebazteko –deialdi hori Osasun kontseilariaren abenduaren 10eko 325/1999 Foru Aginduak arautzen du—. Ebazpen horren bitartez, guztira 13.558.627 pezetako zenbatekoa egiten duten diru laguntzak eman zitzaizkien zenbait erakunde eta organizaziori.

Aipaturiko 325/1999 Foru Aginduari jarraituz, zenbateko horren % 70 eskuratu zen diru laguntzen ematea onetsi ondoren, eta gainerako % 30 eskuratu da diruz lagunduriko programen frogagiri ekonomiko eta teknikoak jaso eta gero.

2) Diruz lagunduriko erakunde eta programen zerrenda xehekatua honako hau da:

– Aldezar elkarte (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia: G-31442023), honako programa hauek egiteko: bestelako arrisku-jokabideen prebentziorako programa. Horren barnean sartzen ziren:

- 99ko osasun-programaren jarraipena egin eta hura indartzea.
- Elikadura orekatuari buruzko kanpaina.
- Gurasoen eskola.
- Zenbatekoa: 902.432 pezeta.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua (I.F.Z.: G-3150009C), “Sexualidad y juventud: creciendo desde el placer” izeneko programa egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Erakusketak.
 - Tailerrak.
 - Antzerkia.
 - Musika.
 - Afaria.
 - Hitzaldiak.
 - Eskolaren esparruko parte-hartzea.
 - Hedabideak.
 - Zenbatekoa: 4.028.000 pezeta.
- Caparrosoko Iluna Gazte Elkarte (I.F.Z.: G-31326531), “Voy y vengo por el Aragón” izeneko programa egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Alkohola eta beste droga batzuk hartzeari buruzko tailerrak.
 - Bide-heziketari buruzko tailerra.
 - Aisialdiari buruzko tailerra.
 - Autobusa.
 - Zenbatekoa: 385.200 pezeta.
- Miranda-Argako “Las Torres” elkarte (I.F.Z.: G-31588890) “Prevención y Promoción de la Salud frente a conductas de riesgo” izeneko programa egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Anorexia eta bulimiari buruzko tailerra.
 - Etxeko lehen sorospenei buruzko tailerra.
 - “Emakumearen estresa landa-ingurunean” elkarriketa.
 - Zenbatekoa: 115.000 pezeta.

- Nafarroako Gorren Elkartea (I.F.Z.: G-31058043), honako programa hauek egiteko. Horien barnean sartzen ziren:
 - Gizarte-trebetasunei buruzko prestakuntza, gazte gorrentzat.
 - Gizarte-trebetasunei buruzko ikastaroa.
 - Zenbatekoa: 615.000 pezeta.
- Vianako Udala (I.F.Z.: P-3125100B), “Educación en hábitos alimenticios” izeneko programa egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Anorexia eta bulimiari buruzko tailerra.
 - Kontsumo eta publizitateari buruzko tailerra.
 - Zenbatekoa: 50.000 pezeta.
- Lodosako udala (I.F.Z.: P-3115600C), osasunaren sustapenerako programa, elikaduraren arloan, EpS-ri buruzko II. Jardunaldiak egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Gurasoen tailerrak.
 - Nerabeen tailerrak.
 - Sukaldaritza osasungarriari buruzko ikastaroa 60 urtetik gorakoentzat.
 - Zenbatekoa: 432.000 pezeta.
- Zizur Nagusiko Udala (I.F.Z.: P-3190700I), pertsona adinduentzako osasuna eta ariketa fisikoak sustatzeko programa egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Senderismoa Zizurtik.
 - Aretoko dantzak.
 - Jolasak parkean.
 - Zenbatekoa: 339.495 pezeta.
- Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (I.F.Z.: G-31246176), “helduentzako tailerrak” programa egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Sexualitateari buruzko tailerrak.
 - Elikadura-nahasmenen prebentziorako tailerra.
 - Zenbatekoa: 600.000 pezeta.
- Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (Lakuntza) (I.F.Z.: G-31177868), alko-hola eta bestelako sustantziak hartzearekin lotura daukaten arriskuak murrizteko programak egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - “Joan eta etorri” autobusa.
- Prebentzio-kanpaina, gazteen topaketa-taldeak.
 - Zenbatekoa: 790.000 pezeta.
- Iruñeko Saioa Eskola (I.F.Z.: G-31423775), bestelako arrisku-jokabideen prebentziorako programak egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Elikadura-heziketako programa.
 - Sexu-heziketako programa.
 - Zenbatekoa: 576.000 pezeta.
- Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (I.F.Z.: G-31576366), bestelako arrisku-jokabideen prebentziorako programa egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Menopausia.
 - Elikadura.
 - Sexualitatea, nerabeentzat.
 - Begiraleak begiratzuz.
 - Zenbatekoa: 552.000 pezeta.
- Espainiako Gurutze Gorria (I.F.Z.: Q-2866001G), honako programa hauek egiteko:
 - Osasuna sustatzeko programa, kolektibo zehatzei zuzendua: Magreb-eko emakumeak, Saharatik beherako Afrika eta bestelako kolektibo babesgabeak: 6 prestakuntza-ikastaro.
 - Zenbatekoa: 1.120.000 pezeta.
- Cosplan-Bidare Famili Orientazioko Zentroa (I.F.Z.: G-31624760), “sexualitate eta ugalketaren esparruetan bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko programa” egiteko. Horren barnean sartzen ziren:
 - Zentroko programaren berri ematea.
 - Solasaldiak.
 - Talde-topaketak.
 - Zenbatekoa: 320.000 pezeta.
- Elizagorria, Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (I.F.Z.: G-31613938), honako programa hauek egiteko:
 - “Joan eta etorri” programa.
 - Solasaldiak, afixak, informazio-gutunak, pankartak.
 - Autobusa.
 - Zenbatekoa: 1.088.000 pezeta.

– Lodosako udala (I.F.Z.: P-3115600C), arrisku-jokabideen prebentziorako honako programa hauek egiteko:

– Gazteen trafiko-istripuei buruzko II. kanpaina, publizitatea eta gaueko autobusa.

– Zenbatekoa: 425.000 pezeta.

– Vida Nueva elkarte (I.F.Z.: G-31208176), gizarteratze-prozesuan dauden pertsonen sustapenerako programa egiteko. Horren barruan sartzen ziren:

– Kirolak: aerobica, areto futbola, saskibaloia, pilota.

– Osasuna sustatzeko tailerrak.

– Jarraipen pertsonalizatua, ohitura osasungarrii dagokienez.

– Zenbatekoa: 520.000 pezeta.

– Idoskia elkarte (I.F.Z.: G-31596927), "Asteburuko irtenaldia, komunikazioa sustatzeko" programa egiteko.

– Zenbatekoa: 345.000 pezeta.

– Juventud de Olite elkarte (I.F.Z.: G-31347909), osasunaren sustapenerako "¡Cuida tu body!" programa egiteko:

– Zenbatekoa: 100.000 pezeta.

– Eguesibarko udala (I.F.Z.: P-3108500D), "aurrea hartzeko eta osasuna sustatzeko proiektua" izeneko programa egiteko: hitzaldiak.

– Zenbatekoa: 260.500 pezeta.

3) Aipaturiko ebazpen horretan, "Aurrea hartzeko eta osasuna sustatzeko programetarako itunak" izeneko lerroak zeukan zuzkiduraren % 22,5 inguru erabili gabe utzi zen, programa-mota horretarako ez zelako erakunde edo organizazio gehiagorik aurkeztu edo aurkeztu zirenek ez zituztelako betetzen deialdian ezarritako baldintzak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 19an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Behi-azienda hiltzea dela-eta Europar Batasuneko arauak betetzearren hartutako neurrii buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak behi-azienda hiltzea dela-eta Europar Batasuneko arauak betetzearren hartutako neurrii buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du behi-azienda hiltzea dela-eta Europar Batasuneko arauak betetzearren hartutako neurrii buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Zezen ikuskizunetan ganadua hiltzeari dagokionez, jakinarazten dizut Foru Komunitateak zezen ikuskizunei buruzko erregelamendu berekia duela, ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Aipatu erregelamenduan jasotzen eta arautzen dira Nafarroak zezen ikuskizunen arloan dituen berezitasun eta tradizioak, eta ez Estatukoan; Estatuko erregelamendua autonomia erkidego guztietan aplikatzen da, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezik.

Berezitasun horien artean, nagusienak hurrengoak dira: plaza eramangarrien arautzea, erizain-degien baldintzak, albaitarien izendatzea, espektakuluen sailkapena, herri ikuskizun tradizionalak eta Lehendakaritzaren eta Agintaritzaren Deletuaren eginkizunak.

Hala ere, zezenketa eta nobilladetako lehen, bigarren eta hirugarren ekitaldiak egiteko moduari dagokionez, Nafarroako arauak ez dute inolako salbuespenik ezarri, uste izan baita zezenketak

Foru Komunitateaz gaindi daudela, ez direla Nafarroako ondare kulturala bakarrik.

Horregatik, departamentu honek ez du bultzatuko, Nafarroarako, zezenketen azken ekitaldia desitxuratuko duen neurri berariazkorik deskabelluari dagokionez.

2.- Hala ere, Europako erabaki horren azken helburua betetzeko –gizakiek zenbait material arriskutsu ez dituztela kontsumituko bermatzea– Nafarroako Gobernuak, otsailaren 19an eginiko bilkuran, otsailaren 19ko 38/2001 Foru Dekretua onetsi zuen; foru dekretu horren bidez aldatu zen 381/2000 Foru Dekretua, abenduaren 26koa, Nafarroako behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formearen kontra premiazko aurre neurri batzuk hartu zituen.

Foru dekretu horrek beste artikulua bat sartu zuen, 4.a; hona testua:

"4.1. artikulua. Nafarroan egiten diren zezen ikuskizunetan hildako zezenak ez dira giza kontsumorako izaten ahal.

2. Ikuskizunaren arduradunek bermatu behar dute, baimena lortzeko, hildako zezenak bilduko dituztela eta baimendun garraiolari batek eramane dituela arriskuko material espezifikoak trata-

tzeko zentro edo industria batera edo esaten zaion beste leku batera, han suntsitzeko."

Hots, zezen ikuskizunetan hildako zezenen gorpuekin material arriskutsuekin jokatzeko den gisan jokatu da; horrela, ekidin egiten da giza-kion osasunean izan dezakeen edozein eragin.

Beraz, espresuki, xedapen iragankorraren bidez, "etenda geratzen da Nafarroako Zezen Ikuskizunen Erregelamenduaren honako artikulua hauen aplikazioa: 14.a, 1., 2. eta 3. idatz-zatiak, 23.a, 4. idatz-zatia; 55.a; 79.a, 2. idatz-zatia, bigarren paragrafoa"

Etendako artikulua horiek hauei buruzkoak dira: haragi-hondakinen nabearean baldintzak, hil ondoko errekonozimendua, eta sari banaketak.

3.- Ez. Zezen ikuskizun batean hildako animalia bat elikadura katetik kentzen bada eta material arriskutsutzat hartzen, ez da beharrezkoa galderan aipatzen den bezalako neurririk.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko otsailaren 20an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Adingabeen Legea abian jartzeak dakarren kostuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Adingabeen Legea abian jartzeak dakarren kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Adingabeen Legea abian jartzeak dakarren kostuari buruz. Hona, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluekin bat, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Eginiko galderei erantzun aurretik, gauza oro-ko batzuk argitu beharra dago, bai eta zehaztu beharra ere zein den Nafarroako egoera gaur egun.

5/2000 Lege Organikoak 4/1992 Legea ordezkatu zuen; lege hori abian jarri zenean, aldi baterako izan zen, eta presazko prozedura erabili zen onesteko; izan ere, 16 eta 18 urte bitarteko adingabeak sistema judizialek kanpo gelditzen ziren. 4/1992 Legea indarrean sartu zenean, gizarte mobilizatu egin zen, autonomiek eskariak egin zituzten, prestakuntza ikastaroak, bilera ugari Madrilén Gizarte Gaietako Ministerioarekin. Orain ere, antzeko egoera gertatzen ari da, edo berdina: lege berria segituan sartuko denez indarrean, neurriak hartu nahi dira alde aurretik (8 urte pasa dira 5/2000 Legea onetsi arte).

8 urte horietan abian jarri diren baliabideak oso ezberdinak izan dira autonomia erkidegoetan; gainera, erkidegoek dituzten arazoak eta egoera sozialak ez dira berberak.

Nafarroak aurreikusitako zituen, 1993 urtean jada, 5/2000 Legearen ondorioz sortuko ziren beharrak, eta Lagun Etxea zentroa eraiki zuen adingabeko arau-hausleentzat; 18 plaza zituen, eta zentroa araubide irekiko edo erdi irekikotzat jo zuen. Gero, hitzarmenak egin ziren Sin Fronteras elkartearekin (20 plaza) eta Ilundaingo Haritz Berri granja-esko-

larekin (10 plaza); horientzako egin ziren klausula teknikoen pleguetan, jasota dago bertan betetzerik izanen dela Adingabeeentzako Epaitegiak ezarritako neurri judizialak.

Urteotan, neurri judizialak zituzten 14 eta 16 urte bitarteko adingabeen kopuruak, abenduaren 31n, hauek izan dira:

1996 urtea	1997 urtea	1998 urtea	1999 urtea	2000 urtea
2	6	2	7	6
			1 Nafarroatik kanpo	2 Nafarroatik kanpo

Horrela, erraz ikus daiteke ez direla bete zeuden aurreikuspen alarmistak, bai eta ez direla konparagarriak Nafarroako errealitate soziala eta biztanle kopurua eta beste autonomia erkidego arazotsuago batzuk, hala nola Andaluzia, Madril, Katalunia eta Gaztela-Mantxa besteak beste.

Nafarroan, Sin Fronteras, Lagun Etxea eta Ilundain zentroetan, ohiz, 14 eta 18 urte bitarteko neska-mutilak egoten dira, zeini konfliktudunak deitzen baitiegu normalean. Ez daude neurri judizial baten ondorioz, baizik eta neurri administratibo gisa daude zentro horietan, ikastetxeek igorritako, oinarrizko gizarte zerbitzuek, familiak, etab.; egoera hori pentsaezina da beste erkidego batzuetan, eta, gainera, gehienek ez dute babes zentrorik adingabe oso gatazkatsuentzako.

Azken urteotan, zentro horietan egon direnak oso gutxi izan dira zenbaitetan; ondorioz, eman zaien laguntza oso egokia izan da.

Bai, egia da Nafarroak ez duela zentro itxirik, eta beti uste izan dugu ikuspegi praktikoa eta teknikoetik ez zela beharrezkoa, hurrengo arrazoiengatik:

1. Zenbait urtetan ez da inongo neurri judizialik ematen, hau da, zentro itxietan egotea ezartzen duenik.

2. Izaten denean, jada egoera horretan dagoen adingabe batentzat izaten da; gutxi batzuetan, bi adingabe izaten dira elkarrekin zenbait hilabetetan. Beraz, oso da zaila kasu bakoitzarentzat hezkuntza programa edo zentro berezi bat izatea.

3. Zentro itxi batek behar dituen egitura fisikoa eta altzariak izatea ez da, inondik inora, harro egotekoa. Baldintza horiek beharrezkoak dira adingabeen kopurua handia baldin bada –40 plazako zentroak, adibidez–, zaila baita adingabe

hauei fisikoki eustea hezkuntza metodoak soilik erabiliz.

4. Kostu ekonomikoa oso handia da, eta, Nafarroan, ez dago oso argi zenbaterainoko beharra izan den orain arte. Horregatik esan da beti beste autonomia batzuekin batera erabiltzeko zentro bat komeniko litzatekeela.

Nafarroan, Sin Fronteras, Lagun Etxea eta Ilundain zentroek, lan egiteko eta neurri judizialak betetzeko, araubide itxia erabili dute; hala ere, beste kasu batzuk Nafarroatik kanpo dauden zentroetara bidali behar izan dira, gatazkatsuegiak zirelako eta ez zitzaielako zentro itxiko neurria ezarri, baizik eta erdi irekikoa.

Jabetuta gaude, orokorrean, babespeko adingabeen arazoak geroz eta larriagoak direla, eta, beraz, izaten duten hondatzea geroz eta handiagoa dela. Beraz, uste dugu beharrezkoa dela beste neurri batzuk hartzea, hala nola behatzaileak, zeinek hezitzaileei laguntza emanen bailiekete adingabeei behar duten hezkuntza-erantzuna ematen.

Bestalde, ukalezina da 17 eta 18 urtera heltzen direnean, bai eta 19-21era ere segur aski, gazteok, gehiago izateaz gain, jarrera muturrekotuagoak izaten dituzte; horrek eskatzen duena da zenbait moldaketa egitea zentroetan, baina, gehienbat, babes sisteman dauden adingabeentzako beraientzako eta zentro berria eraiki bitartean.

Azkenik, gogoratu behar dugu 5/2000 Legearen izpiritua berreziketaren aldekoa dela gehienbat, eta araubide itxiko internamendu-neurriak kasu berezi eta oso larrietarako soilik ezartzen dituela; beraz, seguruenik ez da gehiegi handituko horrelako neurrien kopurua.

Legearen helburua da inguru irekiko bergizarteratzea; hor bai, segur aski, askatasun zainduak gora egiten du, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aurreikusita du.

Gobernuak zentro berri bat egitea aurreikusi du; horrek 5/2000 Legearen beharrak konpontzen ditu, bai eta babespeko adingabeen arazoak ere. Arazo horiek geroz eta larriagoak dira eta geroz eta lehenago agertzen dira; beraz, babeserako baliabideak dibertsifikatu eta egokitu egin beharko dira.

1. galdera. Adingabeen Legean bildutako neurriak Foru Komunitatean abiarazteko zenbatetsitako guztizko kostua.

Ez da kosturik aurreikusi; izan ere, aztertzen ari gara Adingabeen plana eztabaidatu eta onetsi

artekoan –orain prestatzen ari da–, non neurririk egokienak ezartzen baitira.

Behaketa eta Harrera Zentro berria izanen den lokala egokitzea 14 milioi kostatu da, eta horren kudeaketa gastua 12 milioi handitu.

2. galdera. Ohartarazi al du Nafarroako Gobernuak Estatuko Gobernuak, araubide itxiko internamendu-neurriak eta drogamenpekotasuna edo nahaste psikiko larriak dauzkaten adingabeen internamendurako neurriak bete ahal izateko azpiegitura egokirik ezaz eta bestelako giza nahiz gauza bitartekorik ezaz?

Ez, ez baita nabaritu behar hori.

3. galdera. 2000ko iraileko agerraldiaz geroztik, zehaturiko adingabeentzako araubide itxiko zentro espezializatuak eta internamendua beharrezko egiten duten nahaste psikikoak edota drogamenpekotasuna dauzkaten adingabeentzako zentroak abiarazteko zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak?

A) Zentro berria eraikitzeke proposamena.

Behaketa eta Harrera Zentroa lekuz aldatu eta behar berrietarako –zuhertasunezko internamendua eta euspen-neurriak– lehenbailehen egokitzea.

B) Iruñeko Aita Menni klinikan 2 plaza gordetzea. Adingabeak egoteko zein izanen den lekurik hoberena erabakitzeke lanetan jarraitzen dugu. Adimen Osasuneko Zuzendariorde eta arduratuko da hortaz.

C) Drogamenpekotasunari buruzko foru planaren arloan, Dianova elkartearekin hizketan ari gara abian jar dezaten adingabeentzako programa bat. Egun, badira 2 adingabe (babespekoak) hortaz baliu daitezkeenak, baina inortxo ere ez neurri judizialpekorik.

4. galdera. Beste autonomia erkidego batzuen jarrera ikusirik (Adingabeen Legea betetzeari ezezkoa eman dio Kataluniak, eta Madril eta Andaluziak esan dute ezin dutela bete), zein da Nafarroako Gobernuak jarraian izanen duen jarrera 5/2000 Lege Organikoa aplikatzeari dagokionez?

Ez dugu aurre ez egiteko moduko arazorik.

5. galdera. Gaur egungo Lagun Etxea, Sin Fronteras eta Ilundaingo granja-eskola zentroetan araubide erdi irekiko eta irekiko neurriak aplikatzeko hainbat arlotan –azpiegitura fisikoak, plantillak handitzea eta dagoeneko dauden langileek dituzten hutsaren hurrengo soldatak igotzea– behar

diren hobekuntzak egiteko zer aurrekontu zenbaitetsi da?

Aztartzen ari da zenbat hezitzaile behar den adingabe bakoitzeko, bai eta zenbat diru behar izateko hala behar izanez gero. Hori egiten ari da neurri judizialen ondorioz eta babespeko adingabe oso gatazkatsuak daudelako.

Gizarte Gaietako Ministerioa, autonomia erki-degoekin bat, adingabeak internatzeko zentroetan

lanean aritzeko profesionalen profilak diseinatzen ari da, eta aztartzen, orobat, horientzako osagarri ekonomiko bat jartzea egokia izan daitekeen.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko otsailaren 15ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Kirol instalazioei buruzko 2000-2003 planaren ariora eraiki asmo diren igerileku estaliei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak kirol instalazioei buruzko 2000-2003 planaren ariora eraiki asmo diren igerileku estaliei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du kirol instalazioei buruzko 2000-2003 planaren ariora eraiki asmo diren igerileku estaliei buruz. Hona, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluekin bat, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.-Zein dira 2000-2003 urteetako kirol azpiegituren planari jarraikiz eraiki asmo diren igerileku estaliak eta zein herritan kokatuko dira?

Aipatu planean ezarritako irizpideen arabera dirulaguntza jasoko duten igerilekuak, edo etorkizunean dirulaguntza jasotzeko aukeratu diren igerilekuak, honakook dira:

Eskaera egin duen entitatea	Non dagoen	Espedientea hasi zen urtea
Caparroso	Caparroso	2000
Corella	Corella	2002
Lodosa	Lodosa	2001
Ebroko Kirol Mankom.	Los Abetos	2001
Noain/Elortzibar	Noain	2000
Azkoién	Azkoién	2001
Zangoza	Zangoza	2001
Tutera	Tutera	2001
Atarrabia	Atarrabia	2002

2000-2003 urteetako kirol azpiegituren planaren 2.2 oinarriari jarraikiz aukeratutako toki entitateak:

Eskaera egin duen entitatea	Non dagoen	Espedientea hasi zen urtea
Aezkoako Batzarrea	Aribe	2001
Agoitz	Agoitz	2001

2.-Zein izan dira Nafarroako Gobernuak igerileku bakoitzaren kokagunea erabakitzeko irizpideak eta arrazoiak? Nafarroan, 2000-2003 urteetako kirol azpiegituren planaren babesean igerileku estaliak eraikitzeari buruz departamentuek luzatutako txostenen kopiak nahi ditugu.

Nafarroako Gobernuak, 2000ko ekainaren 5ean eginiko bilkuran hartutako erabaki baten bidez, 2000/2003 eperako kirol instalazioen plan zuzentzailea onetsi zuen.

Plan zuzentzaileak zenbait helburu proposatzen ditu; besteak beste, eta berariaz, Nafarroako

Foru Komunitatea igerileku estaliz hornitzea, eta horrela eskualde guztien beharrak asetzea.

Planari eta bertan ezarritako helburuei jarraitu zaie, edonola ere, toki entitateei, igerilekua egiteko dirulaguntza ematean edo igerileku proiektuak aukeratzean.

Nafarroako Gobernuaren departamentuek, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamendua alde batera utzita, ez duten inongo txostenik egin plan zuzentzailearekin zerikusirik dutenik; beraz, ez dago eskatutakoa ematerik.

3.-Zein da, kasu bakoitzean, igerileku estalia eraikitzeko aurreikusiriko diru-ekarpena? Finantziario horrek zerikusirik al du eskualdeko proiektu bakoitzari atxikitako udalen kopuruarekin?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zer diru-ekarpen eginen duen aipagai ditugun dirulaguntzak emateko Plan zuzentzaileak ezartzen du; hor agertzen dira orientabiderako moduluak: eragina izanen duen eskualdearen arabera, eskualdeko buru egiten duten herrien arabera eta hirigune indibidualen arabera.

Honekin batera doa 2000/2003 eperako kirol instalazioen plan zuzentzailea.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko otsailaren 13an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Lizarrako merindadeko zahar-etxeetako plazen premia beteta dagoenentz jakiteko galdera

Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak ondoko galdera egin zuen: "Lizarrako merindadeko zahar-etxeetako plazen premia beteta dagoenentz jakiteko galdera". Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 12ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko

foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Lizarrako merindadeko zahar-etxeetako plazen premia beteta dagoenentz jakiteko. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Zure departamentuaren ustez, Lizarrako merindadeko plazen premia –bere kasa moldatzen direnen zein laguntza behar dutenak, etxebizitza babestuetan eta eguneko zentroetan– beteta al dago?

2.- Zenbat plaza dago gaur egun aurreko galderan aipatutako kasuetako bakoitzean?

Galdera horiei erantzun baino lehen, garrantzitsua da dauden baliabideei eta haietara iristeko moduari buruzko informazioa ematea.

Bere kasa moldatzen direnenak eta laguntza
behar dutenenak sartzeko plazak

Herria	Egoitza	Titularra	Plazak, guztira	Bere kasa moldatzen direnentzako plazak	Laguntza behar dutenentzako plazak	Plaza itunduak	Plaza pribatuak
Lizarra	Santo Domingo	Publikoa, NGOI	110	88 + 22*	0	0	0
Lizarra	San Jerónimo	Fundazioa	54	54	0	0	54
Los Arcos	Santa María	Publikoa - Udala	23	17	6	0	23
Carcar	Virgen de Gracia	Fundazioa	44	44	0	0	44
Lerín	Ntra Sra Pilar	Fundazioa	24	24	0	0	24
Lodosa		Patronatua	60	52	8	0	60
		Pribatua, komunitate					
Muruzabal	Betania	erlijiosoa	33	33	0	0	33
Sesma	Virgen Carmen	Fundazioa	60	54	6	0	60
Viana	Ntra Sra Gracia	Patronatua	59	38	21	0	59
Etxabarri		Merkataritzakoa	18	18	0	0	18
		Merkataritzakoa -					
San Adrián	Grandes Depend	Pribatua	137	0	137	110	27
		Merkataritzakoa -					
Lizarra	Luz	Pribatua	155	0	155	120	35
	Guztira		777	444	333	230	437

* 22 plaza laguntza behar dutenentzako; hasiera batean, sartzeari begira, bere kasa moldatzen direnentzako plazak dira.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundutako proiektu batean, bere kasa moldatzen direnentzako 22 plaza daude Eunete Egoitzan, Antzin-Amezkoa aldean.

Beren kasa moldatzen direnentzako egoitzetako plazak.

110 plaza: Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren plaza publikoak, Lizarrako Santo Domingo Egoitzan. Gaur egun laguntza behar dutenentzako plazetan 22 pertsona badaude ere, sarrera beti pertsona bere kasa moldatzeko moduan dagoenean gertatzen da.

334 plaza: Egoitza pribatu edo fundazioetan.

Beteta al dago Lizarrako aldean bere kasa moldatzen diren pertsonentzako dagoen eskaria?

Esan beharra dago Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Lizarrako Santo Domingo egoitzan sartzeko eskariak baizik ezin dituela egiaztatu. Hori da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak sarrera erabakitzen duen eskualde horretako zentro bakarra. Gainerako egoitzetan, eskariak eta sarrerak zentroko organo kudeatzaileak

leak erabakitzen ditu; hori dela eta, ez daukagu behar adina datu galdera horri erantzuteko. Ez dakigu zenbat eskari dauden, eta zentroetan galdetuta ere ezin izanen genuke hori datu egoki gisa hartu, eskatzaileak egoitza batean, bitan edo gehiagotan egon baitaitezke erregistraturik.

Lizarrako Santo Domingo Egoitzan sartzeko eskariei dagokienez, egiaztatu ahal izan dugu sartzeko eskariak bete egiten direla epe gutxi-asko labur batean. Halaber, egiaztatu ahal izan dugu plaza huts bat geratzen denean, ikuspegi soziale-tik bereziki larria den kasuren bat ez baldin bada-gog tartean, itxaron zerrendako zenbait postutan aurrera egiten dela, harik eta plaza hori beteko duen pertsona topatu arte.

Gainerako egoitzetako bere kasa moldatzen direnentzako 334 plazei dagokienez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Gizarte Zerbitzuen arloan norbanako nahiz familientzako prestazio eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Dekretuak araututako baldintzak betetzen dituzten erabiltzaileentzako banakako prestazio ekonomikoetarako eskariak jaso eta ebazten ditu.

Laguntza behar duten
pertsonentzako egoitza-plazak

- Guztira 339 plaza daude Lizarrako Merindadean laguntza behar duten pertsonentzat. Zentro pribatuetan daude guztiak.
- 230 plaza. Itun araubidean. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua da sarrerak erabakitzen dituen.
- 52 plaza. Plaza pribatuak dira, irabazi asmorik gabeko egoitzetan. Zentro bakoitzeko organo kudeatzailea da eskari horiek kudeatu eta sarrerak erabakitzen dituen. Arauen arabera (168/1990 Dekretua), interesdunak laguntza ekonomikoa eska dezake egonaldia ordaintzeko.
- Kopuru hori aldatzen doa, eta handitu daiteke egoitza bakoitzean daudenez okerrera egiten duten neurrian. Plaza hori birsailkatu egiten da, laguntza behar duen egoiliarrek betetzen duen bitartean ere.
- 62 plaza. Merkataritzako egoitza pribatuetan. 2001eko urtarrilaren 10eko finantzaketa lege berriaren arabera, laguntza ekonomikoa eska daiteke egonaldia ordaintzeko.
- 22 plaza. Lizarrako Santo Domingo Egoitzan laguntza behar dutenentzako dauden plazak. Ez dira sarrera berriak kontatzen, zentroan dauden bitartean ezgaitzen doazen egoiliarrekin betetzen baitira.

Beteta al daude Lizarra aldeko laguntza behar duten pertsonen eskariak?

Guk uste dugu –eta hala egiaztatu dugu– azaldu berri dugun eskaintzarekin eskualde horretako eskariak nahiko beteta daudela. Are gehiago, itunpeko araubidekoak diren egoitza pribatuak 230 plazek beste eskualde batzuetako –Iruña eta Tuteran, esate baterako– laguntza behar dutenentzako plazen defizita betetzen da, haietan zaharren kopuruaren arabera plaza ratio txikiagoa baitute.

Hona Lizarrako eskualdean itxaron zerrendetan laguntza behar duen pertsonen baten espedientearen funtsezko arrazoia: sartzeko lehentasuna espedienteko puntuazioak erabakitzen du; horrek esan nahi du presa gehiago dutela arazo larriagoak dauzkatenez. Halakoetan, interesdunak edo haren familiak onartzen badute, beren eskualdetik kanpoko laguntza behar dute-

nentzako plaza bat beteko dute. Gero, lekuz aldatzea eskatzen badute, eskari horri erantzunen zaio eskaria egin den lekuan plaza hutsak sortzen doazen neurrian.

Pisu babestuak:

Eskualde honetan dagoen baliabidea apartamentu babestuak dira. 8 plaza daude Garesen, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan beste eskari- ren bat badago. Eskari horiek ez dira Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutura iristen.

Eguneko Zentroko plaza lagunduak:

Lizarrako Ordoiz Eguneko Zentroa 25 plazako zentro pribatu bat da. Baliabide berri bat denez, eskari gutxi daude, momentuz. Oraingoz, eskualdeko eskariak betetzen ditu.

Interesdunak banakako laguntza ekonomikoa eska dezake egonaldia ordaintzeko, 168/1990 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak garraio egokitu finantzatuko du.

3.- Ba al dago itxaron zerrendarik? Halakorik baldin badago, zenbat pertsona dago horietako bakoitzean?

- 22 eskari: Gizarte Ongizatearen Institutuan erregistraturiko beren kasa moldatzen diren pertsonen eskarien itxaron zerrenda.
- 19 eskari: Laguntza behar duten pertsonen eskarien itxaron zerrenda.
- 0 eskari: Apartamentu Babestuetara sartzeko eskarien itxaron zerrenda.
- 0 eskari: Eguneko Zentrorako eskarien itxaron zerrenda.

4.- Lizarrako merindadeko zenbat herritar dago ingesatuta merindade kanpoko zahar-etxeetan? Zehaztu zahar-etxe horiek publikoak ala pribatuak diren.

Laguntza behar dutenak

- 0: Zentro publikoak
- 33: Zentro pribatuak, itunpekoak
- 29: Lagunduak
- 4: Lagunduak, psikogeriatrikoak
- 4: Laguntza ekonomikoa jasotzen duten zentro pribatuak.
- 4: Lagunduak

Printzipioz, erabiltzaile horietatik 4 baizik ez dago Lizarra aldetik kanpo plaza psikogeriatrikoe-

tan, beste alternatibarik ez dagoelako. Gainerakoak, borondatez daude Lizarratik kanpo, inork ez baitu eskatu beste zentro batera eramatea, eta egoitzara sartzea eskatzailearen borondatez izan baita.

Beren kasa moldatzen direnak.

5: Beren kasa moldatzen direnak.

2: Plaza familiar batean, ezkontidea lagunduta dagoelako.

3: Egonaldia ordaintzeko laguntza ekonomikoarekin.

Printzipioz, 5 horietatik 2 baizik ez daude beren eskualdetik kanpo baliabideak falta direlako. Gainerakoak beren borondatez sartu dira.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan dezan.

Iruñean, 2001eko otsailaren 15ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Gizarte Ongizate Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Gizarte Ongizate Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera bat egin du Gizarte Ongizate Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketei buruz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengo jarraikiz, hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Zer ari da egiten Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua etorkinentzako gizarte laguntzaren inguruan?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua, Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Lanaren Departamen-

tuaren lankidetzarekin, etorkinen inguruan esku hartzeko plan integrala prestatzen ari da; plan horretatik sortuko diren jarraibideak izan bitartean, honako jarduketa hauek gauzatzen ari dira:

Etorkinentzako Gizarte Sustapenaren Bulegoa (Gizarteratzearen Atala), apirilaren 14ko 30/2000 Forua Aginduaren bidez sortua.

- Etorkinekin lan egiten dutenak koordinatzea: gizarte ekimeneko entitateak, toki entitateak, Nafarroako Gobernuako departamentuak, Nafarroako etorkinentzako laguntza eraginkorra emateko behar diren jarduketak aurrera eramateko.

- Inmigrazioaren arloan Nafarroan lan egiten duten entitateentzako diru laguntzak kudeatu, baloratu eta gainbegiratzea. Hona 2.000. urtean emaniko diru laguntzak, eta zertarako eman diren:

- Hastapeneko harrera, eta honen barrenean, eskaera, informazioa, aholkularitza juridikoa, gizarte konpainia, etab.

- Baliabide normalizatuak eskuratzea (hezkuntza, osasun zerbitzua, etxebizitza, gizarte prestazioak, etab).

- Baztertuak izateko arriskuan dauden familia etorkinen gizarteratzea.

- Bertako biztanleentzako informazio eta sensibilizazio kanpainak.

Entitatea	Langileak	Funtzionamendua	Jarduerak	GUZTIRA
ANAFE	17.379.927	6.509.665	1.000.000	24.889.592
SOS ARRAZAKERIA	3.337.256	693.600	1.715.000	5.745.856
U.G.T.	3.300.000	15.000	250.000	3.700.000
A.E.N.A.			350.000	350.000
			GUZTIRA	34.685.448

• Oinarrizko gizarte zerbitzuei aholkuak eta laguntza ematea inmigrazioaren arloan, dokumentazioa, berriazko legeria bidaliz, prestakuntza eta informaziorako jardunaldian antolatuz (2000ko ekaineko jardunaldiak, oinarrizko gizarte zerbitzuei eta lehen osasun laguntzako gizarte langileei zuzenduak).

Tutoretzen eta Sektorearteko Programen Bulegoa (Gizarteratze Atala)

• "Gizarteratzeko etxebizitza programa", Etxebizitza Departamentuarekin lankidetzan. ANAFE elkarteak ere parte hartzen du entitate laguntzaile gisa, eta 2.000. urtean gizarteratzeko 41 etxebizitzaren erosketa kudeatu du etorkinentzat.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren gainerako atalak:

• Atzerritarrei ematen zaien laguntza biztanle guztiei ematen zaiena da, egindako eskaera zehatzen arabera (lanean hasi eta gizarteratzeko neurriak, babesa behar duten edo gizarte gatazkan sarturik dauden adingabeak, Institutuak kudeaturiko haurtzaindegietan haurrak sartzeara, minusbaliotasunak aintzat hartzea, etab.).

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda.

Errepedeetako seinale metalikoak babesteko hartutako neurriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak errepedeetako seinale metalikoak babesteko hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin du errepedeetako seinale metalikoak babesteko hartutako

neurriei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariren erantzuna.

1.- Aztertu al du Nafarroako Gobernuak segurtasun hesiak babesteko aukera –PVCa, poliesterra edo elementu metalikoak erabiliz– Nafarroako errepedeetako zenbait lekutan, motorzaleek kolpe eta istripu gehien izaten dituzten guneeetan hain zuzen?

Nafarroako Gobernua Nafarroako Errepedeen Sarearen bide segurtasunerako plan integral bat prestatzen ari da, eta bertan aurreikusiko dira izan daitezkeen ekimen guztiak, haien helburua errepedeen sarearen segurtasun pasiboa hobetzea baldin bada.

2.- Diseinatu al du Nafarroako Gobernuak neurri bereziren bat seinale horizontaleetan pintura irristakaitza jartzeko?

Duela bi urtetik hona, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak sistematikoki ezarri ditu banda zimurak zirkulazioko erreiak eta bazterrak bereizten dituzten marra zurietan. Seinale horizontal hauen azalera askoz zimurragoa izaki, haien xedea da gidariak soinuaren bidez ohartaraztea bide bazterrera sartu izanaz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko otsailaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Hirigintzako udal planei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak hirigintzako udal planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera batekin du hirigintzako udal planei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Etxebizitzak zaharberitzeko bulegorik gabe dauden eskualdeak Iparraldekoa deiturikoa eta Agoizkoa dira.

Bulegoak abian jarri eta udalerrriak horiei atxikitzea toki entitateen beraien antolaketa asmoen menpe dago. Beraz, gobernuan ez dugu bi eskualdetan bulegoak abian jarri ez izanaren arrazoi berri zehatzik (badira halaber zenbait udal –Barañain eta Azkoi, adibidez– inguruan bulego edukita ere hari atxiki ez direnak).

2.- 42 herrik ez dute hirigintza planeamendurako inongo tresnarik.

Herriz herri aztertzen badugu gai hori (badira zenbait udal konposatu udal planik ez dutenak, baina haien kontzejuetakoren batek edo guztiek badute hirigintza planeamendurako figuraren bat), 115 herrik ez dute hirigintza planeamendurik (PO, AS, UP) ez eta DSUrik ere.

3.- Udal planeamendua berraztertzen ari diren herriak (udalak), berriz, hauexek dira:

Guztiek jaso dute departamentu honen diru laguntza (% 80 edo 60), foru agindu hauen bitartez:

– Urtarrilaren 14ko 11/1999 Foru Agindua, 1998ko deialdia ebazten duena.

– Otsailaren 14ko 142/2000 Foru Agindua, 1999ko deialdia ebazten duena.

– 2000ko deialdiarena, argitaratzeko.

Planeamendua berraztertzeko espedienteak hasi ziren datak ez dira kasu guztietan berdinak, udalen gorabeheren menpe baitaude; esan daiteke udal gehienetan erredaktatu edo tramitatzeko fasean daudela duela 5 urte, gehienez. Herri txikien kasuan azken bi urtekoak dira. Azagraren kasua berezia da, 1977an eman zitzaizolako hasiera fase horri.

Erredakzio/tramitazioaren egungo egoera ondoko zerrendan ageri da.

4.-Egun, departamentuan, herri hauetako udal planak behin betikoz onesteko espedienteak daude:

	Sarrera eguna	
Garaioa	00-uzt.-18	Subrogatzeko
Gesalatz	01-urt.-8	Dokumentazio guztia
Lerin	00-urr.-4	Agiriak eskatuta
Irunberri	01-ots.-12	
Orotz-Betelu	00-aza.-28	
Erronkari	01-urt.-18	Dokumentazio guztia

Era berean, egun, tramitazioan daude ondoko zerrendako udal planak, baina behin betikoz ebazteko epea etenik dago akats teknikoak direla

eta (10/94 Foru Legearen 116.1 art.), eta udalei horiek zuzentzeko errekerimendua luzatu zaie.

	Errekerimendua
Allo	00-mai.
Ameskoabarren	98-mar.-4
Baztan	01-urt.-14
Noain (Elortzibar)	00-urr.-6
San Martin Unx	00-ots.
Zugarramurdi	98-urr.-29
Berribeiti	01-urt.-26

Udal hirigintza planeamenduko (udal plana) espedienteak ebazteko epea luzea da, 10/94 Foru Legearen 116.6 artikulua ezartzen duen gehienekoaren barrenean departamentu honentzat, hau da, 5 hilabete espediente osoa jasotzen denetik hasita, eta horren arrazoiak legeak eskatzen duen dokumentazioaren konplexutasunean datza, horrek eragin ohi baitu udalei espedienteak osatzeko dokumentazio osagarria aurkezteko errekerimenduak egitea. Udal planen espedienteak behin osaturik, ebazteko batez besteko epea bi hilabetekoa da.

5.- Udal planak legedia indardunari egokitu behar zaizkio. Horretarako legezkotasun kontrola egiten zaie behin betikoz onetsi baino lehen. Estatu legeri berriak zenbait aldaketa eskatzen ditu lurzoruaren sailkapenean, eta oraingoz arazorik gabe konpontzen ari dira, bi legeriak batera interpretatuz. Halere, jakin badakigu lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko lege berri baten premia dagoela, eta bistan dago horretan ari garela lanean aspaldixkotik, aurtengo lehen seihilekoan haren onespena Parlamentuan tramitzeko asmoarekin.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: aipatu zerrenda foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Itoizko urtegiaren inguruko herrietako lurrak nahitaez desjabetzeko tramitei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Itoizko urtegiaren inguruko herrietako lurrak nahitaez desjabetzeko tramitei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera bat egin du Itoizko urtegiaren inguruko herrietako lurrak nahitaez desjabetzeko tramitei buruz. Hona

hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

– Zer jarrera du Nafarroako Gobernuak tramite horiei buruz?

Nafarroako Gobernua 1990. urtetik aritu da Itoizko urtegiak eragindako ondasunak desjabetzen (Nafarroako Gobernuaren azaroaren 7ko Erabakia, 1990eko azaroaren 23koa, desjabetzaren prozeduraren tramitazioari hasiera ematen diona).

Haren abiapuntuko esparrua da 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzaren buruzko Legeak ezarri zuena. Lege horretan aurreikusitena da bai ukitutakoen adostasuna lortzeko aukera bai espedienteak ebaztea Desjabetzaren Juntaren bitartez.

– Urtegiak politika zein gizarte mailan sortu dituen arazoak eta obraren interes orokorra kon-

tuan izanik, ez al luke ahalegin handiagoa egin beharko Nafarroako Gobernuak ordainketak egiterakoan?

Desjabetzapen prozedura laburbiltzen duten zenbakiak nahiko adierazgarriak iruditzen zaizkigunez, hona hemen:

. Ukitutako jabeen kopurua: 159

. Adostasunezko akordioa izenpetu duten jabeen kopurua: 127

. Desjabetzapenen Epaimahaian tramitaturiko espedienteen kopurua: 30

. Desjabetzapenen Epaimahaian tramitaturiko eta ebatziriko espedienteen kopurua: 22

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko otsailaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Komunikazioaren teknologiak denen eskura jartzeko jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak komunikazioaren teknologiak denen eskura jartzeko jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix María Taberna Monzón jaunak galdera egin du Komunikazioaren teknologiak denen eskura jartzeko jarduketei buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

– Zer ekintza egiteko asmoa du Foru Diputazioak Internet bezalako komunikazio-teknologiak denen eskura jartzeko?

Nafarroako Gobernua plan bat prestatzen ari da informazioaren gizartea Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko. Plana prestatzeko azken fasean gaude, eta hemendik gutxira onetsi eta jendaurrean aurkeztuko da.

Planean informazioaren gizartea eta telekomunikazioak Nafarroako Foru Komunitatean garatzeko betebeharrak eta lehentasunezko jarduketa-

lerroak ezarriko dira. Halaber, Nafarroako Gobernu departamentu guztiek beren eskumenen esparruan informazioaren gizartea dela-eta garatu nahi dituzten ekimenak jasoko dira.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren ekimenetako bat, sustapen planean jasota dagoena, da dirulaguntzen programa bat ezartzea Nafarroako herritarrek internetera sartu eta erabil dezaten sustatzeko. Dirulaguntzetarako deialdi hori epe laburrean gauzatuko da. Aipatzekoa da, halaber, ekimen horrek Gizarte Ongizate Departamentuaren Famili Planarekin koordinaturik sustatuko da.

– Zenbat ikastetxe publiko eta liburutegi publikotan dauka biztanleriak Interneterako sarbidea, bai neurketa absolutuan bai ehunekoetan?

Gaur egun, Foru Komunitateko 230 ikastetxeetan (ehuneko 100) (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, araubide bereziko hezkuntza) internetera sartzeko modua daukate; horietako gehienetan, RDSI (Zerbitzu Integratuen Sare Digitala) bidez sartzeko da. Liburutegiei dagokienez, Nafarroako Gobernuaren mende daude 67tik 36 internetera sartzeko modua eskaintzen dute.

– Nafarroako zein herri daukate kable bidezko telebista digitalerako sarbidea?

Gaur egun, batere herririk ez dago Nafarroan kable bidezko telebista digitala duenik. Une hauetan, telebistari dagokienez, Tenaria konpainiak (lehen Retena zena) kable bidezko telebista analogikoaren zerbitzua baizik ez du eskaintzen.

– 10.000 biztanletik 5.000 bitarteko herrietara, 5.000tik 2.000ra bitartekoetan eta 2.000tik beherakoetara kable bidezko telebista digitala zenbateko epean iritsiko dela jotzen da?

Tenaria konpainiak jakitera eman duenez, 2003. urtetik aurrerako kontzesiorako egindako plangintzaren arabera, Teneriak egingen du sistema analogikotik sistema digitalerako bihurtzea; horrek eragina izanen du, lehenbizi, 10.000 eta 5.000 baino biztanle gehiagoko herrietan. Gainerako herriei dagokienez, zerbitzua 2003. urtetik aurrerako hedapen-planaren arabera emanen da; kasu batzuetan, 2020. urtera arte itxaron beharko da.

– Teknologia berriak direla-eta, kable bidezko telebista digitala instalatzeko planak berrikusteko asmorik ba al dago?

Tenaria konpainiak jakitera emandakoari jarraituz, 2002. urterako ezartzea aurreikusi da.

– Zein da Intraneteko sistema Foru Administrazioan? Zentralizatuta dago? Zenbat puntu eta zentrotara hedatzen da?

Foru Administrazioak intraneteko zerbitzu zentralizatua emateko zerbitzari bat dauka; sare horrek bigarren mailako zerbitzari batzuk ere baditu urruneko sareetako ordenadore nagusiaren mende. Sistema hori Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen du.

Sare korporatiboak Foru Administrazioiko 41 zentro edo egoitza nagusien arteko konexioa ematen du. Gainera, Foru Administrazioaren mendeko lurralde osoan zabalduak dauden gainerako urruneko sareek (osasun etxeak, liburutegiak, ikastetxeak, nekazaritzako bulegoak, turismo bulegoak eta abar) sare publiko digitalen bitartez (RDSI) sartzen dira sare korporatiboan eta, horrenbestez, intraneteko zerbitzarian.

5.796 dira sare korporatiboan ordenadore bat konektaturik daukaten puntuak.

– Ba al du asmorik Foru Diputazioak telefonia integraleko zerbitzuak (intranet eta internet barne) emateko lehiaketarako deia egiteko?

Bai. Foru Administrazioak epe laburrean lehiaketa bat deituko du telekomunikazioko zerbitzuak

esleitzeko: telefonia eta datuen transmisioa sartuko dira horretan.

– Zergatik segitzen du Foru Diputazioak enpresa bakar baten kontratuarekin, lehiaketarik gabe, telefonia-arloan gertatzen ari den liberalizazioa gorabehera?

Telefoniako zerbitzuen liberalizazioa duela zenbait urte indarrean dagoen arren, ikuspegi juridikotik, operadoreek azpiegitura propioa biztanleen kontzentrazio handia dagoen lekuetan baizik ez dute ezarri; operadore horiek Nafarroan duten sarea ez da aski Foru Administrazioaren beharrak betetzeko. Bestalde, hirugarrenen azpiegituren bitartez zerbitzuak liberalizatzeko prozesua pixkanaka gertatzen joan da, eta aste gutxi batzuk dira hiri-begizta zabaldu dela.

Kontuan hartuta Nafarroako Gobernuak daukan telefonia zerbitzuen ehuneko 70 hiri-trafikokoak direla, ez du zentzurik gainerako trafikoak kontratatzeak. Jarrera horixe da, bestalde, Espainiako administrazio publiko gehienetan izan dena. Hala eta guztiz ere, teknikoki egoki jo diren zerbitzuetan, kontratazioarako lehiaketa bat egin da, Hezkuntza Departamentuko ISParen interneterako sarbidea adjudikatzeko –Brithis Telecomi adjudikatu zaio– edo talde itxiko irrati-telefoniako zerbitzua adjudikatzeko –Telefónica Móviles SA izan da adjudikazio hartzailea.

Une hauetan, legegintzaldi honetako helburuen programan iragarri zen bezala, hemendik gutxira deituko den lehiaketa bat prestatzen ari gara.

– Zenbatekoa da Foru Diputazioak Telefónica, S.A.ri urtero ordaintzen dion faktura?

1999an, Nafarroako Gobernuak 554 milioi pezeta gastatu zituen telefonia zerbitzuetan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Bardeako tiro poligonoan bonbardaketa praktikan uranio pobretua erabiltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Bardeako tiro poligonoan bonbardaketa praktikan uranio pobretua erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Bardeako tiro poligonoan bonbardaketa praktikan uranio pobretua erabiltzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

1. Ba al daki Nafarroako Gobernuak Bardeetan oraindik ere dagoen poligonoan NATOk indarrek mota horretako armak erabiltzen dituzten bonbardatze praktikak egiteko?

Erantzuna:

Lehendakaritza Departamentuak ez dauka horren berri.

Galdera:

2. Zein informazio jasotzen du Nafarroako Gobernuak praktika militarren inguruan: praktika motak, noiz egiten diren, orduak, eta abar?

Erantzuna:

Lehendakaritza Departamentuak ez du inolako informaziorik jasotzen.

Galdera:

3. Zein kontrol sistema erabiltzen du Nafarroako Gobernuak ziurtatzeko tiro ariketa horiek ez dutela ondorioz alde hartako biztanleengan?

Erantzuna:

Lehendakaritza Departamentuak ez dauka ezarritako kontrol sistemarik.

Galdera:

4. Zein kontrol sistema erabiltzen du alde hartako nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen egokitasuna bermatzeko?

Erantzuna:

Lehendakaritza Departamentuak erabilitako kontrol sistemarik ez dago.

Galdera:

5. Nafarroako Gobernuak ziurtatu ahal die erki-degoko herritarrei ez gaur ez atzo, ez eta 2001eko ekainaren 9ra arte, ez dela eginen alde hartako herrietan ondorioak izan ditzakeen praktikarik?

Erantzuna:

Lehendakaritza Departamentuak ezin du berme hori eman.

Galdera:

6. Nafarroako Gobernuak duen berme bakarra unean-uneko Defentsa Ministroaren hitza al da?

Erantzuna:

Hala da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 24an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurra Induráin

Abere irinak suntsitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak abere irinak suntsitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres galdera egin du abere irinak suntsitzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Bai. Europako Batzordeak baimentzen dituen guztiak.

2. Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak gomendatuta, baldintza egokiak baitzituen horretarako.

3. Bai. Irinak Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak gomendatuta bidali ziren Culebretera.

4. Hondakinak biltzeko ezarrita dagoen kanona baizik ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Eremu mistoko errepideetako seinale elebidunak aldatzeko erabiliko den diru kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eremu mistoko errepideetako seinale elebidunak aldatzeko erabiliko den diru kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eremu mistoko errepideetako seinale elebidunak aldatzeko erabiliko den diru kopuruari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Zein diru-kopuru zehatz erabiliko du zure Departamentuak eskualde mistoko errepide-sarean gaur egun dauden seinale elebidunak ordeztuko?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez du batere dirurik erabiliko egun Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak ezarritako eremu mistoko bide-sarean dauden seinale elebidunak ordeztuko lanetan. Beti egin duen bezala, kontserbazio lanen bitartez berritzeko fasean dauden edo berritu beharrekoak diren seinaleak ordeztuko ditu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Kanpin instalazioen kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak kanpin instalazioen kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du kanpin instalazioen kontusailaren betetzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Gai honi buruzko dokumentazioan ikus daitekeen bezala, ez dago inolako komunikaziorik toki entitateei zuzendutakorik establezimendu horiek ezarriz. Ondorioak kanpinen titularrei jakinarazi zitzaizkien.

2. Aurreikusita dago hasitako jarduketegi berrekiten horretarako eraturiko departamentuen arteko batzordea biltzeko dei eginez. Hartara, establezimendu guztien erabilgarritasun ekonomikoa eta egoera aztertu ahal izanen da, dirulaguntzen politika egoki bat diseinatzeko.

3. Ez dago berriazko diru kopururik horretarako.

4. Ez du bilerarik egin.

Iruñean, 2001eko otsailaren 26an

Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

Tunelei buruzko araudi indardunari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak tunelei buruzko araudi indardunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Belateko Tunelen segurtasunari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Gaur egun Europar Batasuneko eta Foru Komunitateko araudi indarduna zein da?

Europar Batasunean ez dago inolako arau ofizialik tunelak eraikitzeari buruz ez eta haien ustiakuntzarako behin betiko instalazioei buruz ere. Halere, ongi ezagunak eta proiektuetan maiz erabiltzen dira Frantziako Tunelak Aztertze Zentroak (CETU) eta Errepideen Mundu Elkarteak argitaraturiko ikerlan eta arauak.

Espainiari dagokionez, Sustapen Ministerioaren 1998ko azaroaren 19ko aginduak "Lurreko garraiorako lurrazpiko obrak proiektatu, eraiki eta ustiatzeko jarraibideak (IOS-98)" onetsi zituen.

Jarraibide horiek nahitaez betetzekoak dira haren eskumeneko obretan.

Nafarroan ez dago horri buruzko araurik, baina tunelak egiteko prestatzen ari diren proiektuetan goian aipaturiko gomendio eta arauak aplikatzen ari dira.

2.- Zure Departamentuak ba al dauka egokitzapen-kostuei buruzko balioespenik?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Barne Zuzendaritza Nagusiari proposatuz Belateko Tunelaren egoerari eta harekin loturiko babes zibilaren arloko balizko hobekuntzei buruzko berriazko azterlan bat egiteko.

Barne Zuzendaritza Nagusiak azterlan horren kontratazioa sustatu du; haren ondorioak hilabete batzuen buruan egonen dira eskuratzeko moduan.

3.- Zure Departamentuaren aburuz, egoki diren jarduketeki ekin behar al zaie?

2. galderaren erantzunean aurkituko dituzu horri buruzko argibideak.

4.- Zein epe aurreikusi dituzu afera honetan?

2. galderaren erantzunean aurkituko dituzu horri buruzko argibideak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Tunelen egoeraren azterlanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak tunelen egoeraren azterlanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Belateko tunelak trafikorako itxita egoteari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Bukatu al du jadanik Departamentuak Nafarroako errepideetako tunelen egoerari buruzko azterlana, 2000n zehar eginen zuela agindu zuen hori, hain zuzen ere?

Bai.

2.- Zein prestatze-fasetan dago azterlan hori?

Amaituta.

3.- Zein arrazoi aipatu behar ditu zure Departamentuak atzerapen hori justifikatzeko?

Bat ere ez, inolako atzerapenik gabe egin baita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Urtegien egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak urtegien egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du urtegien egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak zein taldetan sailkatuta dagoen Nafarroako urtegi bakoi-tza?

Ministroen Kontseiluak 1994ko abenduaren 9ko bilkuran onetsitako "Uholde Arriskua dela-eta Babes Zibila planifikatzeko oinarritzko jarraibidea" delakoak ezartzen du presen titularrak behartuta daudela finkaturiko kategorietan (A, B, C) sailkatzeko proposamena egitera, arrisku-mailaren arabera. Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bitartez egiten da sailkapena.

Herrilan Departamentuak, inongo presaren titular ez den eta sailkapena egiteko eskumenik ez duen arren, 1998. urtearen amaieran Nafarroako presa eta urtegien inbentario bat egin zuen, eta bertan 5.000 m³tik gorako urmaelak sartu zituen. Halaber, arrisku potentzialari buruzko aurretiazko azterketa bat egin zuen. Garai hartan, Nafarroan, 5.000 m³ko edukieratik gorako 117 urtegi zeuden, eta, ondorioztatu zenez, haietatik 35 ziren A kategorian sailkatzeko modukoak, bat B kategorian sailkatzeko modukoa, eta, gainerakoak, estimazioz C kategorian sailkaturiko presak ziren.

2.- Nafarroako Gobernuak ba al daki Nafarroako urtegiek eginak eta baliozkotuak ote dituzten larrialdietarako planak, 1996an Estatuko Gobernuko Herrilan Ministerioak onetsitako nahitaezko baldintza gisa?

Oro har, baieztatu ahal da presa handien titularrek (Estatuko Administrazioak, enpresa hidroelektrikoek eta abarrek) azterlanak eta sailkapen proposamenen izapidaketa egin dituztela.

Presa txikien titularrek, ordea (eskuarki, udalak edo ureztatzaile-erkidegoak dira), ez dute, oro har, izapidaketa-lan hori egin.

Nafarroako Gobernuak azterlan horiek egiteko diru laguntzetarako deialdiak egin ditu ("Urtegi txikiak egokitu eta hobetzea" aurrekontu-lerroa), baina ez dute ia erantzunik jaso.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Nafarroako ubideko obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako ubideko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroako ubideko obrei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein dira arrazoiak Nafarroako Ubidearen lanak hasi gabe egoteko iazko uztailaren 18az geroztik? Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak has daitezkeela lanak? Atzerapen honek eragina izanen du Nafarroako Ubidea errealtate bihurtu eta Nafarroako zenbait aldetan bulzada ekonomiko garrantzitsua izateko epeetan?

Nafarroako Ubideko lehen bi zatietarako obrak 2000ko uztailaren esleitu ziren, aurreikusita zegoen bezala. Une honetan, Ingurumen Ministerioak eta "Canal de Navarra, S.A." delakoak sinaturiko Zuzeneko Kudeaketarako Hitzarmeneko alderdi operatibo batzuen aldaketa egiteke dago. Dokumentu hori aldatu bezain laster, beharrezkoak

diren obra-kontratuak formalizatuko dira, berehalakoan.

Hitzarmen hori aldatzeko izapidaketari ekin dio jadanik Ingurumen Ministerioak, eta hurrengo asteetan, Ministroen Kontseiluak hura onestearkin bat, burutuko dela aurreikusten da.

Egoera horrek, zeina administrazio-izaera hertsikoa baita, ez dio nabaritzeko moduko inolako atzerapenik ekarriko Nafarroako Ubidearen eraikuntza eta garapenari.

2.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubidea kudeatzeko hitzarmena aldatu behar ote den? Nolako aldaketa izanen da? Jakinarazi al die Nafarroako Gobernuak nekazaritzako elkar-teei eta ureztatzaileen komunitateei Nafarroako Ubidea kudeatzeko hitzarmena alda daitezkeela?

Nafarroako Gobernua guztiz jabeturik dago Zuzeneko Kudeaketarako Hitzarmena aldatzearen eraginaz; izan ere, hari alderdi operatibo batzuk aldatzeak obra publiko horren eraikuntza eta ustiapenaren kudeaketa hobea eta eraginkorragoa izatea ekarriko du.

3.- Nafarroako 2001eko aurrekontuetan Nafarroako Ubiderako onartu diren kontusail txikien arrazoa zein da?

2001erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Nafarroako Ubiderako jasotzen duten aurrekontu-kontusaila ez da txikia, inondik ere. Jaun horrek dakien bezala, Nafarroako 2001erako Aurrekontu Orokorren barnean Nafarroako Parlamentuak onetsitako kontusaila behar bestekoa da Nafarroako Foru Komunitatea "Canal de Navarra, S.A."

delakoaren sozietate-kapitalean aurreikusi bezala sartu ahal izateko, Ingurumen Ministerioarekin batera ezarritako plan ekonomikoaren ildoan (horren xedea, bi Administrazioen ekarpen ekonomikoak finkatzea ez ezik, obra publiko funtsezko horren eraikuntzari bultzada eta bermea ematea ere da).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---